



### Genetikoa bai, baina...

**G**enetikak ez du erabat baldintzatzen diabetearen garapena. Frantziako ikertzaile-talde batek diabetea agertzearekin zerikusia omen duten geneak isolatu ba-

koko Sierra Madre inguruetan. Beren artean ia harremanik ez dago eta horrexegatik, hain zuzen ere, aukeratu zituzten ikerketa hau egiteko. Lehenik batzuen eta besteen gorputz-masa neurtu zuten eta ondoren, bi taldeetan glukosarekiko tolerantzia nolakoa zen aztertu. Emaitzek erakutsi zuten, Mexikoko pimasen artean diabeterik ia-ia ez dago, baina mugaz bestaldeko indiarrek joera handia dute. Arrazoa, ikertzaileen arabera, bizimodua eta elikahiturak aztertuz aurkitu da. Mexikarrak mendian bizi dira eta nekez egin ahal dituzte koipetan aberatsak diren otorduak; estatubatuarrek, ordea, erabat sedentarioak izateaz gain, bertako dietaren jarraitzaile sutsuak dira, hau da, jan-neurri hiperkalorikoaren zaleak.

### "Ondare" nuklearra

**B**errogeitahamarreko eta 60ko hamarkaden artean, tiroideko minbizi izugarri ugaritu da EEBBetako Nevada inguruetan. Garai horretan, izan ere, bertako armadak saio nuklearrak burutu zituen Nevadako basamortuan eta, itxura guztien arabera, proba horien ondorioak dira bertako biztanleek orain pairatzen dituztenak.

Orain baino lehen ere, sarritan hitz egin izan da tiroideko minbiziaren eta energia nuklearraren artean ustez dagoen harremanari buruz. Jakina den bezala, tiroideak hazkunde-fasean zeregin zuzena du eta, beraz, tiroideko minbiziak eragin gaitztoa du umeengan. Zehatzago, proba nuklearrak burutu ziren garaian artean ume zirenen artean handiagotu egin da tiroideko minbiziaren inzitidientzia. EEBBetako National Cancer Institute delako erakundeak eman ditu ezagutzera datuok. EEBBetako Armadak, ordea, ukatu egin du Nevadan egindako saio nuklearren eta minbiziaren artean inolako loturarik dagoenik.

### Partikula-azeleragailua eta osasuna

**M**ilan inguruko Abazia di Mirasole herrian erabilpen medikoa soilik izango duen Europako lehen partikula-azeleragailua zabalduko dute bost urte barru. Hirurogei milioi dolar kostatuko da eta urteko 1.000 minbizi-gaixo tratatuko ditu. Lehen aldiz munduan posible izango da kirurgiarenean irispidetik kanpo dauden tokiak protoiz zein karbono-ioiez zuzenki tratatzea, begiko

edo garuneko zenbait gune, esaterako. Azeleragailuak tumorezelulak erradikal askak sortuz akabatuko ditu. Gainera, protoiak zein ioiak X izpiak baino zehaztasun handiagoz foka daitezke.

### Lo hartzeko goxokiak

**G**alesko Newport hiriko Royal Gwent Hospitalean diharduen Mark Allman botikariak umeei txupete bereziak ematen dizkie. Morfinaren antzekoa den fentanila dute goxoki horiek eta anestesia gisa erabiltzen ditu ebakuntza egin beharreko umeekin. Horrela ebakuntza aurreko estres guztia saihestu ahal izaten du. Goxoki bakoitzak duen dosia oso zehatz kalkulatu egoten da umearen pisuaren arabera. Sistema hau arrakastatsua izan da, bai medikuentzat eta baita umeentzat ere.



### Mark Allman bere goxokiekin.



Artxibokoa



Genetikak baldintza badezake ere, diabetea gertzen den kasu guztietan faktore gehiago dagoela uste dute orain ikertzaileek. Bizimoduarekin oso lotuta dago gaixotasun honen agerpena.

dituzte ere, EEBBetan eta Mexikon egin berri den beste ikerketa batek besterik erakutsi digu. Lehen emaitzak baino ez dira ezagutzera eman, baina badirudi bizimoduak genetikak adina baldintza dezakeela gaixotasun kroniko honen sorrera. Pimas izeneko indiarrek EEBBetako mugaz bi aldetan sakabanaturik bizi dira: talderik garrantzitsuena Arizona inguruko erreserbatan bizi da eta bestea Mexi-